

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 263/2018 Erabakia, maiatzaren 29koa. Onespena ematea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzean enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko (ALAVA InterKOOP) 2018rako laguntzen deialdiari

Gure enpresen arteko batzuentzat ez da fenomeno erraza nazioartekotzea, eta, izan ere, gutxi dira nazioartekotzea beren estrategian erroturik duten enpresak, baina haiexek eragiten dituzte gure esportazio gehienak. Nolanahi ere, gomendagarria soilik ez, beharrezkoa ere bihurtu da geroz eta enpresa gehiagorentzat, ekonomia globalak eragiten dituen aldaketei erantzutearren.

Arabako enpresei nazioartekotzen laguntzeari lotuta, Arabako Foru Aldundiak Euskal Nazioartekotze Partzuergoan parte hartzen du. Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiek eta EAeko hiru merkataritza ganberak osatzen dute partzuergoa, eta bertan, erakunde arteko ekintzak diseinatu eta koordinatzen dituzte, gure enpresek nazioarteko merkatuetan agerpen handiagoa izan dezaten eta barrurago sar daitezten. Halaber, Arabako Foru Aldundiak, Arabako enpresei nazioarteko bihurtzen laguntzeko eta aholku emateko jarduerak finantzatzen ditu, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez.

Gauzak horrela, Arabako Foru Aldundiak, 2015ean, laguntza lerro bat abiarazi zuen, konpromisoa hartuz hemen bertatik arabar enpresei laguntzeko XXI. mendeak eta gizarte geroz eta globalizatuago batek dakartzan desafio, erronka eta aukerei aurre egiten.

Laguntza lerroaren helburua da enpresa lehiakortasuna bultzatzea, nazioartekotzea eta bertako enpresen arteko elkarlana sustatuz kanpoko merkatuetara jo dezaten eta beste herrialde batzuetako enpresekin harreman ekonomikoak egin ditzaten, eta nabarmentzekoa da, hor, zein komenigarria den enpresen arteko lankidetzaren estrategiak antolatzea, hartara bakoitzak bakarka baino emaitza hobekiago lortuko direlakoan.

Hala, bada, erantzuna eman nahi zaie enpresek nazioartekotzeari ekiten diotenean aurkitu ohi dituzten arazo nagusiei, neurri batean bederen eta baliabide mugatuekin, eta, betiere, beste erakunde publiko batzuek horri buruz gauzatzen dituzten gainerako jardunen osagarri; batez ere, ETEen arazoei erantzun nahi zaie, zeren eta, arruntean, giza baliabide eta baliabide material gutxiago izaten baitituzte, eta ezagutu ere ez baitituzte behar bezala ezagutzen zer baldintza eta beharizan bete behar diren merkatu berrietan emaitza onak lortzeko, edo finantza baliabide beharrezkoak eskuratzeko.

Alde horretatik, egokitzat jotzen da enpresen arteko lankidetzarako tresnak erabiltzea, hala nola, trakzio erakundeak, zeinetan irabazteko xederik gabeko erakundeak eta nazioartekotzeko bertako enpresa handiak elkartzen baitira. Beste euskal erakunde batzuek erabili dute, dagoeneko, figura hori, eta oso emaitza eraginkorrak izan dituzte ETEei nazioarteko bihurtzen laguntzeko helburuan, hain zuzen ere, ETEak, baliabide nahikorik izan ez eta lankidetzaren proiektuetan elkartzen baitira. Izan ere, figura horretan enpresa txiki zein handiak aritzen dira elkarlanean, eta sinergiak sortzen dira eta onura jasotzen dute alderdi guztiek. Gainera, ETEen nazioartekotze prozesuetan izan daitezkeen era guztietako arriskuak murrizten dira. Enpresen arteko lankidetzaren erakusgarri argia da.

Programak diruz laguntzen du Arabako enpresak nazioartekotzera bideratutako diruz lagungarri diren egintza sorta zabala; kanpo merkatuak hobeto ezagutzeko profesionalen gastuak estaltzen ditu, bai eta proiektuak arrakasta izan dezan garrantzitsu izan daitezkeen hainbat eta hainbat alderdiren gaineko kartarako aholkularitzarenak ere; era berean erakundeetako bertako langileen gastuak ere estaltzen ditu.

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretu bidez onartutako oinarri orokorretan (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26koa) eta Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak oinarri horiei egindako aldaketan ezarritakoa ikusita, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, nahitaezkoa da laguntzen deialdia ezartzea, horri lotu beharko baitzaizkio gure lurraldeko eragile ekonomikoek gauzatu nahi dituzten nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzak ekimenak eta proiektuak, xede horretarako 2018ko dirulaguntzak eskuratu nahi badituzte.

Horregatik, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzean enpresen arteko lankidetzak sustatzeko (ARABA InterKOOP) 2018rako laguntza publikoen deialdia, erabaki honen eranskin gisa doana.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautuko dute: lehiaketa bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrek, zeinak Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretu bidez onartu baitziren (ALHAO, 36. zk., 2012ko martxoaren 26a); horien ondorengo aldaketak (Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretua); eta erabaki honen eranskinean ezarritakoak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 18.1.18.1.10.6.01.07.02.479.00.06 partida, 120.000 euroz hornitua eta 2019rako konpromiso kredituaren 18.3.19.1.10.6.01.07.02.479.00.06 partida, 80.000 euroz hornitua (Enpresak). Xedapen erreferentzia 18.1.18.105.2502 eta 18.3.19.105.23.

– 18.1.18.1.10.6.01.07.02.481.00.18 partida, 180.000 euroz hornitua eta 2019rako konpromiso kredituaren 18.3.19.1.10.6.01.07.02.481.00.18 partida, 120.000euroz hornitua (Irabazteko xederik gabeko erakundeak). Xedapen erreferentzia 18.1.18.105.2503 eta 18.3.19.105.24

Laugarrena. Ebazpen honen bidez administrazio bidea amaituko da. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke, Foru Gobernu Kontseiluari zuzendua, ebazpen hau argitaratzen denetik hasita hilabeteko epean, edo bestela zuzenean haren aurka egin daiteke administrazioarekiko auzien ordenan, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, jurisdikzio eskudunen aurrean.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 29a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARIA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Ekonomia Garapenaren zuzendaria

JAVIER HERNANDO GARCÍA

ERANSKINA**DEIALDIA, ARABAKO ENPRESATXIKI ETA ERTAINEN NAZIOARTEKOTZE PROZESUETAN LANKIDETZA SUSTATZEKO 2018RAKO LAGUNTZENA (ARABA InterKOOP-18)****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen xedea da laguntza ematea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotze prozesuetan lankidetzaz sustatzeko proiektu eta/edo ekintzak egiteko, bai eta Arabako enpresek lankidetzan jardun dezaten ere, kanpora batera irten daitezen. Horretarako, dirulaguntzak emango dira, lehiaketa bidez.

2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 18.1.18.1.10.6.01.07.02.479.00.06 partida, 120.000 euroz hornitua eta 2019rako konpromiso kredituaren 18.3.19.1.10.6.01.07.02.479.00.06 partida, 80.000 euroz hornitua (Enpresak).

– 18.1.18.1.10.6.01.07.02.481.00.18 partida, 180.000 euroz hornitua eta 2018rako konpromiso kredituaren 18.3.19.1.10.6.01.07.02.481.00.18 partida, 120.000 euroz hornitua (Irabazteko xederik gabeko erakundeak).

2.2. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. artikulua betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

3. artikulua. Onuradunak

3.1. Honako erakunde edo enpresa hauek eskuratu ditzakete erabaki honetan jasotzen diren onurak:

a) Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainek (ETE), beren osaera juridikoa edozein dela ere, ekoizpen edo zerbitzu zentzoren bat Arabako Lurralde Historikoaren barruan daukatenean. Sortu zenetik eskaera egiten duen egunera gutxienez urtebete igaro behar da.

b) Trakzio erakundeek, Arabako ETEei nazioartekotze prozesuan laguntzeko proiektuen buru direnak. Trakzio erakundeek ere Araban izan behar dituzte sozietatearen egoitza eta zerga egoitza. Hala ere, betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira zientzia eta teknologiaren euskal sareko eragileak; horientzat nahikoa izango da ekoizpen edo zerbitzu zentro bat Araban izatea.

c) Irabazteko xederik gabeko erakundeek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: Arabako ekoizpen ehunaren erakusgarri badira; egiaztatze moduko esperientzia badute enpresen nazioarteko sustapenean; alor horretan gutxienez hiru urteko ibilbidea badute; sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban badituzte; eta aurreko puntuan aipatutako onuradunak ez badira.

3.2. Deialdi honen ondorioetarako, ETEtzat hartuko dira soldatapeko 250 langile baino gutxiago dituzten enpresak eta urtean 50 milioi euro baino gutxiagoko negozio bolumena edo 43 milioi euro baino gutxiagoko balantzea dituztenak.

3.3. Trakzio erakundetzat joko dira Arabako ETEei haien nazioartekotze prozesuan laguntzeko herrialde edo zona ekonomiko jakin batean lankidetzaz proiektuak dituzten honako erakundeak; enpresa handiak, kanpo sare sendoa duten enpresa nazioartekotuak, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sareko eragileak, baldin nazioartekotzera bideratutako ekintzak badituzte, eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera.

3.4. Proiektuan parte hartzen duten enpresen artean lotura izanez gero, enpresa bakarra hautatuko da entitate onuradun gisa.

3.5. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ez eta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikodun erakundeak ere.

3.6. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizaziorako kontu koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzak proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren jarduketak, hala nola, beste herrialde batzuetako enpresekiko lankidetzak teknikoak, komertzialak, finantzarioak edo bestelakoak, bai eta Arabako enpresen arteko lankidetzak ere, kanpora batera irteteko xedez egingo dena.

Nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzat joko da Arabako gutxienez bi ETEk batera eta modu koordinatuan parte hartzea nazioartekotze proiektu berean.

Honako hauek lagundu ahal izango dira diruz:

– Arabako ETEen arteko lankidetzak prozesuak, nazioarteko bihurtzea helburu dutenak (hasierako fasea zein merkatu berrietara sartzeko).

– Enpresen arteko lankidetzak ekintzak, kanpo merkatuetara sartzeko estrategiatzat hartuta.

– Honako hauek egitea: nazioartekotze plan estrategikoak, merkatu azterketak, bideragarritasun tekniko-ekonomikoa, marketina eta abar.

– Kanpoko aholkularitza ematea gai hauetan: legeak, zuzenbidea, zergak, finantzak eta abar.

– Produktua xedezko merkatuan erregistratzea: homologazio teknikoak eta egiaztapenak.

– Nazioarteko egitura plataformetara sartzeko.

– Merkatuak aztertzeko bidaiak.

– Azterketa misioak eta/edo misio komertzialak.

– Aliatu edo laguntzaile izan daitezkeen edo Arabako enpresen nazioarteko bazkideen alderantzizko misioei loturiko ekintzak.

– Bisitak egitea balizko edo izan daitezkeen bezeroei edo pertsona edo erakunde laguntzaileei.

– Produktuen nazioarteko sustapenak edo erakustaldiak.

– Azoketan parte hartzea eta haietara joatea.

– Oro har, Arabako ETEei kanpora irekitzen lagunduko dieten ekintzak.

4.2. Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko proiektuak

Atal honetan, diruz lagundu ahalko dira soilik aurretiazko identifikazio eta partzuergoak eratzeko jarduerak, nazioarteko lehiaketa edo lizitazioetara sartzeko beharrezko direnak.

5. artikulua. Proiektuetako diruz lagundu daitezkeen gastuak

5.1. Diruz lagundu ahal izango dira 4. artikuluan aipatutako jarduerak gauzatzeko kanpoko profesionalekin edo nazioartekotzean espezializatutako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten erakunde edo enprekin kontratatutako lanak, bai eta proiektua garatzeak dakartzen beste gastu batzuk ere.

5.2. Bidaia eta ostatu gastuak, mantenu gastuak izan ezik:

5.3. Atzerriko azoketan parte hartzea standekin eta produktuak aurkeztea.

5.4. Komunikazio gastuak: 20.000 eurokoa da proiektu bakoitzeko gehienez diruz lagundu daitekeen gastua.

- Webguneak egokitzea.
- Publizitatea: publizitatea sortu eta txertatzea atzerriko komunikabideetan eta interneten.
- Promoziorako materiala: katalogoak, liburuxkak, bideoak eta abar.
- Itzulpen zerbitzua.

5.5. Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak.

5.6. Inbertsioa gastuak: 20.000 eurokoa da proiektu bakoitzeko gehienez diruz lagundu daitekeen gastua.

- Prototipoak garatzea, aldaketak egitea edo produktuak egokitzea nazioarteko merkatu berrietara zabaltzeko.
- Produktuaren erregistroa xedezko merkatuan: homologazioak, egiaztapenak eta nazioarteko marka.
- Lankidetzat proiekturako behar diren software erosketak edo plataforma teknologikoen garapenak.

5.7. Barneko gastuak: proiektuarekin lotura zuzena duten langileen soldatak, Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa kotizazioak barne, bidaiak direla eta kanpoan dauden egunei dagozkionak. Egun eta pertsonako gehienez ere 200 euroko kostua lagunduko da diruz, eta urtean gehienez ere 6.000 euro pertsonako eta 18.000 euro enpresa edo irabazteko xederik gabeko erakundeko.

Honez gain, trakzio erakundeek zuzendutako proiektuetan, erakunde horietako langileen soldatak onartuko dira, Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa kotizazioak barne, onartutako proiektua diseinatzen, koordinatzen eta abian jartzen emandako denboragatik. Barneko gastu hori, gehienez ere, proiekturako emandako dirulaguntza osoaren % 20 izango da.

Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko lanei dagokienez, diruz lagundu ahal izango dira partzuergoak identifikatu eta eratzeko lanak kudeatuko dituzten langileen gastuak, urtean gehienez ere 5.000 euroko gastua pertsonako eta 10.000 euroko gastua proiektuko.

5.8. Eskatzaile bakoitzak bi proiektu desberdin aurkeztu ahalko ditu gehienez ere.

5.9. Arau orokor gisa, honako hauek ez dira dirulaguntzaren xede izango:

- Entitate kontratatzailearen eta kontratatuaren artean loturak daudenean izandako gastuak.
- Proiektuan parte hartzen duten enpresen artean izandako gastuak.
- Aktibo finkoetako inbertsioak, 5.6 atalean aipatutakoak ezik.
- Erakunde onuradunetako langileen otordu, kilometro sari, hoteleko aparteko eta abarren gastuak.
- Material zuzenen gastuak.
- Kontsumoetatik eratorritako gastuak. Esate baterako: elektrizitatea, ura, gasa, mezularitza, posta, garbiketa, telefonoa, zaintza, bulego materiala eta antzekoak.
- Nazioarteko patenteen erregistroa.
- Enpresen erosketak.

- Sustapen materialaren inprimatze gastuak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe lotu ezin diren gastu guztiak.
- Ez da onartuko 100 eurotik (BEZa aparte) beherako gastuen egiaztagiririk.

5.10. Beste herrialde batzuetako fakturekin batera haien itzulpena aurkeztu behar da, ingelesez daudenetan izan ezik.

5.11. Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren ustez, proiektu jakin batean jarduketaren bat badago nazioartekotze proiektutik eratorritako lehiakortasunaren hobekuntzari behar besteko ekarpenik egiten ez diona, hura bazter utz daiteke esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

5.12. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratatzeari baimentzen da, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez gero.

6. artikulua. Aplikazio eremua eta proiektuak gauzatzeko epea

6.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoaren onurarako aplikatu beharko dituzte dirulaguntzarekin egindako azterlan edo proiektuen ondorioak.

6.2. Proiektuek eta/edo gastuek dirulaguntza jaso dezakete baldin eta laguntza eskaeraren ondoren garatzen badira eta 2019ko apirilaren 1a baino lehen gauzatzen badira (egun hori barne).

7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

7.1. Hona hemen erabaki honetan aurreikusten diren dirulaguntzen banaketa eta ehunekoak:

a) Arabako bi enpresa edo gehiagoren parte hartzea duen nazioarteko lankidetzaren proiektu batean dauden ETEak: diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 60.

b) Nazioarteko lankidetzaren proiektu bat zuzentzen duten trakzio erakundeak: diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 80.

c) Enpresen nazioarteko sustapenean egiaztatzen moduko esperientzia duten irabazteko xederik gabeko erakundeak: diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 60.

d) Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko proiektuak: diruz lagundu daitekeen gastuaren ehuneko 60.

7.2. Dirulaguntza hauek emango dira, gehienez ere:

a) ETEen lankidetzaren proiektuetarako edo enpresen nazioarteko sustapenean egiaztatzen moduko esperientzia duten irabazteko xederik gabeko erakundeen proiektuetarako: proiektu bakoitzeko 40.000 euro urtean.

b) Trakzio erakundea buru duten lankidetzaren proiektuetarako: proiektu bakoitzeko 120.000 euro urtean.

c) Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio proiektuetarako: proiektu bakoitzeko 10.000 euro urtean.

7.3. Proiektua dirulaguntza jasotzeko modukoa izateko, dirulaguntzaren gutxienez 1.500,00 euro izango da.

8. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak

8.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela osatuta egongo da:

Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kidea: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren burua, hark eskuordetzen duen pertsona edo zuzendariak hautatutako pertsona.

Idazkaria: Ekonomia Garapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

9. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta modua

9.1. Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdi hau indarrean sartzen denean, eta 2018ko uztailaren 2ko 14.00etan amaituko da.

9.2. Eskabideak Arabako Foru Aldundiaren erakunde webgunean <http://www.araba.eus/web/AyudasDesarrolloEconomico> eskuragarri dagoen ereduari egokitu beharko zaizkio. Halaber, eredu hori Ekonomia Garapenaren Zerbitzuan egongo da eskuragarri (Probintzia plaza 5., 1. solairua, 01001 Gasteiz).

9.3. Eskaera horiek, ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>; horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri digitala izan beharko dute alde zurretik. Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo EZAGUTU EGOITZA – Nola sartu izeneko atalera.

Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean ere aurkeztu ahalko dira (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari zuzenduta egongo dira (Arabako Foru Aldundiaren Ekonomia Garapenaren Zuzendaritza), hargatik baztertu gabe Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoa.

Eskaera Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean paperean aurkezten duen erakundeak, eskaeraren gainerako informazio guztia interkoop@araba.eus posta elektronikora bidali beharko du. Horra hori paperean (ofiziala) bidalitakoaren osagarri izango da; hau da, aurkezpen auzietarako, ez du baliorik.

9.4. Hona hemen aurkeztu beharreko agiri osagarriak:

- Enpresa edo erakunde eskatzaileari dagozkionak:

- IFZren fotokopia.

- Enpresa edo erakundearen memoria laburra.

- Aurkezten diren proiektuetako bakoitzari dagozkionak:

- Nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzaren proiektuaren azalpena.

Trakzio erakundeek zuzendutako proiektuetan, trakzio erakunde liderrak nazioartekotze proiektu bat aurkeztu beharko du gutxienez Arabako bi ETEei begirako trakzio ikuspegiarekin. Proiektuan hauek zehaztu beharko dira: zeintzuk diren enpresa partaideak, egin beharreko ekintzak, proiektuaren aurrekontu globala eta enpresa liderrak eta gainerako partaideek egingo dituzten ekintzen aurrekontu zehatua.

- Lana egingo duen kanpoko profesionalaren eskaintzaren fotokopia (proformako fakturak edo kanpo aurrekontua).

- Eskatutako 3 eskaintzen fotokopiak, diruz lagundu beharreko jarduketaren aurrekontua 15.000,00 euro edo gehiagokoa bada. Horrekin batera, hautatu den eskaintza ez bada eskaintzarik merkeena, aukeratu izanaren arrazoia.

9.5. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzako laguntza eskabide ereduari identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.6. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztagiria, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, sozietate egoitza edo zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute Ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

10. artikulua. Balorazio irizpideak

Aurkeztutako eskabideak ondoren aipatzen diren irizpide eta puntuazioaren arabera baloratuko dira, eta gutxienez 50 puntu beharko dira, diruz lagunduko badira.

a) Proiektuak nazioartekotzeko duen ahalmena (0-40 puntu).

– Enpresen arteko lankidetzaren egituraren diseinua, eta egitura horretan parte hartuko duten eragileen kopurua eta tipologia.

– Merkatuen dibertsifikazioan eta jardueran izango duen eragina: herrialdeen zailtasunak, kanpoko merkatuen negozio aukerak, espezializazioa.

– Nola laguntzen dien negozio estrategiei eta haiek bezero, merkatu, lehiatzaile, produktu eta abarrekiko behar duten birkokatzeari.

– Parte hartzen duten eragileetara ekarriko duen negozio eta enplegu bolumenaren gehitzea.

b) Jardueren inpaktua ingurunean (0-25 puntu).

– Lehiakortasuna areagotzeko egindako ekarpena.

– Gaitasun traktorea eta hazteko eta finkatzeko ahalmena.

– Euskal Autonomia Erkidegoko espezializazio adimenduen estrategiarekiko engaiamendua: Industria 4.0, Energia, Bio-osasuna.

– Ekarpina lurralde orekari.

c) Proiektuaren iraunkortasuna eta jasangarritasuna: etorkizunean izan dezakeen jarraitasuna eta parte hartzaileen konpromisoa (0-25 puntu).

d) Balioesten diren beste alderdi batzuk (0-10 puntu).

– Eskabidearen definizio maila, edukia eta kalitatea.

– Entitate eskatzaileak ingurumenarekiko, laneratze politikekiko, genero berdintasunarekiko eta euskararen erabilerarekiko daukan engaiamendua.

11. artikulua. Ebazpenak eta jakinarazpena

11.1. Organo eskudunak, Balorazio Batzordearen proposamenez, bidezko deritzon ebazpenak emango ditu. Ebazpen horiek gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira, Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa ere kontuan hartuta.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek bide administratiboa agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar daiteke diputatuen kontseiluari erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen, administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioaren aurrean, erabakia jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

12. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea

12.1. Dirulaguntzen likidazioa kasuan kasuko administrazio ebazpenean adierazten den bezala egingo da, bertan zehazten diren betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren.

12.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 60, emakidaren ebazpena onartutakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa. 2018ko abenduaren 14an, egun hori barne, amaitzen den epean, idazki bat aurkeztu beharko da, erakunde onuradunaren ordezkari jarduteko behar besteko gaitasuna duen pertsonak behar bezala sinatuta, erakundeak eman zaion dirulaguntza onartzen duela eta proiektua noiz hasiko den adierazten duena.

12.3. Justifikatu beharreko aurrerakin moduan egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eta ez da ezarriko emandako funtsen berme araubiderik.

12.4 Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 40a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatuztat eman dezan, onuradunak ondoko agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2019ko uztailaren 1a baino lehen (egun hori barne):

a) Egindako jardueri buruzko memoria eta diruz lagundutako azterlanen ondorioen laburpen exekutiboa, edo horien kopia.

b) Egindako jardueren kostua eta gertatu diren desbideratzeak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa. Horren barruan, gastuen taula bat agertu beharko da, hartzekoduna, agiria, haien zenbatekoa eta jaulkitze data adierazten dituena; baita diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru sarreren taula ere, horien zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

c) Fakturak eta froga balio bereko gainerako agiriak, jatorrizkoak edo fotokopia konpulsatuak.

d) Barruko gastuen taula, non agertuko baitira proiektuari atxikitako langileen izenak, NANak, kostuak eta PFEZaren kontura egindako atxikpenak (bidaiako egunekoak).

e) Bidaia gasturik badago, bidaia egin duten pertsonen zerrenda eta ontziratze txartelen kopiak, halakorik egon bada.

f) Hiru eskaintza, eta, eskaintzarik merkeena aukeratu ez bada, horren arrazoiak azaltzen dituen justifikazio txostena (baldin eta partidaren batean, eskaera aurkeztu zenean hiru eskaintza aurkeztu beharrik ez bazegoen ere, geroago benetako gastua 15.000,00 euroko mugara iristen bada edo muga hori gainditzen badu).

Kanpoko profesionalak egindako fakturen nahiz kontratazio berriari lotutako barneko gastuen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.5. Egindako gastuen ordainketaren frogagiriak aurkezteko formatu hauetako edozein erabili ahalko du horretarako:

a) Kanpoko gastuetarako, fakturak ordaindu izana frogatu beharko da. Fakturen ordainagiriak formatu hauetako edozeinetan onartuko dira:

– Jatorrizko banku ziurtagiria, izenpetuta edota bankuaren zigilua jarrita, ondoko datuak zehazten dituena: ordaintzailea, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren hartzailea.

– Transferentzia telematikoen aginduak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua jarrita.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigilua jarrita.

– Libretetako edo kontu korranteetako mugimenduen kopia konpultsatua.

– Diruz lagundutako jarduna zehazten duten erosketa edo zerbitzuen tiketak edo ordainagiriak, ordaindu beharreko kopurua ordaindu dela frogatzen dutenak; hura ezean, dirutan ordaindu bada, jatorrizko ziurtagiria emango da, sinatuta eta/edo fakturaren egilearen zigilua daramana, faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordaintzeko eguna zehaztuta.

b) Barruko gastuetarako dirulaguntza duten proiektuetan:

b.1) Nominak ordaindu izana: Froga agiri gisa bankuko laburpenak eta transferentzia telematikoetarako aginduak, bankuaren zigilua dutela, onartuko dira

b.2) Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaindu izana.

– Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bitartez sortutako TC1 agiria, jatorrizkoa zein kopia (baita konpultsatu gabe ere), eta ordaindu dela frogatzen duen banku laburpena.

– Gizarte Segurantzaren aplikazioaren bitartez sortutako TC2 agiria, jatorrizkoa zein kopia (baita konpultsatu gabe ere).

12.6. Oro har, ordainketen frogagiriak jatorrizkoak izango dira, baina haien ordez fotokopia konpultsatuak aurkez daitezke.

12.7. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira agiriak.

12.8. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo aurkeztutako agiriak guztiak badira, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera.

12.9. Ordainagiriak onartutako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokio kopurua baliogabe utziko da.

12.10. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onartzean bezala, 1.500,00 euro da.

12.11. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Hortaz, onartutako gastu osoaren mugarekin, aldaketak onartu ahalko dira hasieran dirulaguntza jasotako jardueretan eta haiei dagozkien zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez balitz ere.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute. Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak onartu beharko ditu.

12.12. Aurreko paragrafoetan nola dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko hala hura jasotzeko adierazitako agiriak, ahal dela, bide elektronikoko bidez aurkeztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan <https://e-s.araba.eus>.

Era berean, Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz) edo hitzartutako udaletako erregistro orokorretan ere aurkeztu ahal izango dira, bai eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan xedatutako eran ere.

Nola dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko hala hura jasotzeko, eskaera Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean paperean aurkezten duen erakundeak justifikazio agiri horiek interkoop@araba.eus posta elektronikora bidali beharko ditu gerora. Horako hori paperean (ofiziala) bidalitakoaren osagarri izango da; hau da, ez du aurkezpen egiaztagiri baliorik.

12.13. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak dirulaguntza jaso duten jarduerak egiaztatzeko.

13. artikulua. Proiektuen jarraipen teknikoa

13.1. Proiektuaren jarraipena egiteko helburuarekin, erakunde onuraduna Ekonomia Garapenaren Zerbitzuarekin bilduko da proiektuari ekin eta hiru hilabetera, baldin zerbitzu horrek hala eskatzen badu.

13.2. Orobat, onartutako proiektuen jarraipena egingo dute Ekonomia Garapenaren Zerbitzuko teknikariek, eta horretarako, behar izanez gero, onartutako proiektuari loturik kanpoan egingo diren misio komertzialetara edo bestelako jardueretara joango dira.

14. artikulua. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuak, oinarri orokorrak onartzen dituenak, hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da (dekretu hori 36. ALHAOn argitaratu zen, 2012ko martxoaren 26an, astelehenez). Gainera, proiektuek euren baitako jarduera edo jarduketengatik jaso ditzaketen bestelako laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateraezinak izango dira erabaki honetako laguntzekin.

15. artikulua. Garapena

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio erabaki hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro hartzeko.

16. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa

Onuradunak diruz lagundutako jarduerak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, horretarako sortzen diren material edo euskarrietan Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa aipatu beharko da, erakunde honek bere irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituta.

17. artikulua. Eskaerak egokitzea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzei heltzerik ez duten aurkeztutako eskabideak, kasuan kasu, Ekonomia Garapenaren Zuzendaritzak kudeatutako beste laguntza lerro batzuetara eraman ahalko dira ofizioz.

18. artikulua. Azken klausula

Erabaki honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez eta ondoren Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 18ko 6/2014 Foru Dekretuak aurreko dekretuari egiten dion aldaketaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, arautegia onartzen duena; eta dirulaguntzei buruz geroago eman diren gainerako xedapenak.